

# «Bertsolari gehienak sagardotegietan aritzen ziren garai batean»



Garai batean bertsolariak sagardotegietan biltzen zirela esan digu Paulo Txikia.  
MANU MUIKA

Hernaniko zaharren egoitzan elkartu ginen Pablo Zubiarrain 'Paulo Txikia' bertsolariarekin. 83 urte betetzear, bertsolarako zahartuta dagoela esan digun arren, elkarrizketan zehar hainbat bertso kantatu zizkigun sagardotegietan bertsotan egiteko zegoen ohituraren inguruan, baita ezaguna duen Aitor Mendiluze Gipuzkoako txapeldun gazteari buruz ere

■ **Lehen, jende gutxiago joan ohi zen sagardotegietara.**  
Baina orduan ere sagardotegi onak ziren tokiak jendez betetzen ziren. Orduan baserria izaten zen sagardotegia, eta bazter guztietan zeuden. Jala etortzen bazen eta astean ere, askotan joan eta etxera etortzea ezta pentsatu ere... ez orain bezalako lan finak, baina bakallao erreka gure ohitura izaten zen. Bakallaoa erreta, oilo mordoxka handia botata. Harekin eta nahikoa ogi janda eta sagardoa edanda, makina batek bai, hiru eta lau egun etxera joan gabe. Astebete-eta ere bai, lehen-gorri zaharrek esaten zuten ez.

■ **Afaldu ondoren bertsotan hasten zireten.**  
Hori bai, denak. Aritzen ziren gehienak sagardotegietara joaten ziren bertsotara. Orduan afizio handia zen. Auzune horietan eta betiko sagardotegiak ziren tokietan denak euskaldunak izaten ziren. Gu ere horrela hasi ginen. Mutill kozkorra nintzela, hamazazpi urterekin, hasi nintzela

esaten dute. Badakit gazte hasi nintzela. Txiritarekin-eta plazan lehen saloak hemezortzi urterekin egin nituen. Ereñozuko auzune horretan, gure auzunean.

■ **Gero, herri askotan ibilli zinen.**  
Herri guztietan ibilli ginen gerratu gabe, bazter guztietan. Orduan gainera, bertsolariak aritzen ziren asko, baina pasadan ibiltzen ziren, gutxi zeuden. Sagardotegietan biltzen ginen denok. Ohitura zen eta.

■ **Zein bertsolariarekin ibiltzen zinen gehien?**  
Txiritarekin-eta hasi nintzen mutill kozkorra nintzela, eta gero ibilli ginen asko Zepai, Basarri eta Uztapiderekin. Txapelekin ere bai, antonio maria errezilgoarekin-ere bai; Mitxelenaekin asko... gure adinekoak zirenekin. Orain zahar borietatik gutxi bizi gara. Ni eta basarri.

■ **Ondo pasatzen zenuten? Gustura ibiltzen zineten bertsotan?**  
Ez ginen ibiiko ba gustura! orduan ez zen dirurik irabazten.

«Txiritarekin-eta hasi nintzen mutill kozkorra nintzela, eta gero ibilli ginen asko Zepai, Basarri eta Uztapiderekin»

Txirrita orduan zen bertsolaria izanda bost duro kobratzen zuen eta. Gu beranduago hasi ginen hogeita hamar duro kobratzen, gerra geroztik. Orduan dirua izaten zen, baina gaur batere ez. Zugarramurdira-eta joaten ginen. Elizondoraino bizikleta eramane tren zahar horretan, eta gero handik bizikletan Zugarramurdira. Erratzura, Arizkuna...

Behin berrogei duro kobratu genituen Zugarramurdin. Zahar-tan ginenean uztaidek esan zidan: «Tontuak izan galtuk, guk orduan ehun duro eskatu izan bagenitu igoal-igoal pagatuko lizkigukete, eta herriari kalterik ez eta guretzat mesede ederra». Orduan ez zen oraingo diru anbiziorik. Orain jende dena jarri da diruzale, eta denek aberastu nahil dute kolpean. Orain diru asko irabazi, baina gastatu ere azkar. Inbidia beti, mundua egin zenez gero, baina orduan ez zen orain adina. Orduan beste lasaitasun bat zegoen. Altona ere bertsolaria zen, behin sagardotegira joan eta zortzi egun pasatu zituen etxera eto-ri gabe. Amonak etxetik bidali zizkion bazkaria eta arropa aldatzeko.

■ **Beste garai batzuetan bizi gara egun.**

Gaur mundua presaka bizi da, lehen beste lasaitasuna zegoen. Jendeak-dirua, kotxea eta dena badauka, baina orduko lasaitasuna... dirurik ere ez zen izaten baina gauzek ez zuten ezer ere ballo. Arraina debalde zegoen, ia debalde. Neronek ez dit ikusi, baina nire lagün bali aditu diot hor amaratik gora igota Donostian Aleteko auzunean badagoela

sagardotegi bat munto izenekoa, eta hara arrantzaleek Donostiatik terrenara handi bat sardiaz beteta eramaten zutela. Hauek ere debalde, denak partilan erretzen, eta lau jaten bazenituen zuk handik hartu eta beste lau erretzen jarri behar. Debalde jaten zen, eta sagardoa ere halaxe izaten zen.

■ **Hernani eta Astigarraga inguruan ibiliko zinen gehienbat.**  
Bai. Sagardotegietara joaten ziren denak aritzen ziren bertsotan, behin zurrut puska bat eginenez gero. Sagardo ederra edaten zen eta debalde. Lehengo zaharrak gaur piztuko ballra eta ikusiko balute botilla sagardoak 50 eta 60 duro ballo dituela nik uste berriro hilko liratekeela. Orduan hamar xentimo edo ballo zuen.

Behin aitari entzunda, Donostian, Egia auzunean sagardotegi handia zegoen eta hara eramaten zuten sagar asko. Hemengo ba-

serritarrek ere; gehienek hara eramaten zituzten sagarrak, baina ordaintzen zuten oso gutxi. Sei-zazpi zaku gurdian eramaten zituzten, eta kargako hiru duro pagatzen zituzten. Egun batean gure alta eta beste bat joan, han deskargatu, hiruna duro karga kobratu eta bueltan etorri, baina hango nagusiek esan omen zien, «bidean ikusten badituzte sagarrekin datozenak esatezue nahikoa sagar badaukadala, eta hamabi pezeta baino gehiago ez dudala pagatuko». Gure osaba, Otxotorena futbol jokariaren altona, Donostiara zibola eta gure alta handik zetorrela topo egin zuten Ergobiko zubian. Aitak esan zion Donostiako sagardotegiko nagusiak sagarren truke hamabi duro baino gehiago ordaintzeko asmorik ez zuela, eta osabak sagarrak ibaira bota zituen ergobiko zubitik behera. Ez zen pagatzen eta. X